

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kruz Mari Alberdi Alberdi Poxpi

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1943-2021)*

Aurkibidea



Biografia



Azkoitian jaio zen 1943an. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen: aita Baliaras baserrikoa eta ama Altamira auzoko Tejeria ("Tailleixe") baserrikoa. Bederatzi anai-arrebako familiakoa da. Eskolan mojekin ibili zen, lehenbizi Mixerikordian eta Floreagan mertzedarioekin ondoren. 14 urterekin "mandatari" lanetan hasi zen Juaristi lantegian. Gerora delineatzaile gisa egin zuen lan. Gaztetan Gurutze Gorriko eta Anaitasuna futbol-taldeko lehendakaria izan zen. Musika mundua gertutik ezagutu izan du familian eta berak ere saxofoia, dultzaina eta gitarra jotzen ditu, besteak beste. Anai-arrebeekin batera (Ezkerra anai-arrebak izenarekin) hainbat eta hainbat kanta sortu eta jo izan ditu; berak sortua da, esate baterako, [Azkoitiko erlojuaren kanta](#). Erromeria, ezkontza eta bazkarietan era sarri ibili izan da hainbat trikitilariri laguntzen, batez ere Lajari.

Zintak

AZK-014

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-03-27
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Azpillaga, Arantzazu

Pasarteak

1. 'Poxpi' ezizena umetan poxpolin jantzi izanagatik jarria

- **Erref:** AZK-014/001
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Santa Kurutz egunean jaio zelako jarri zioten Kruz izena eta Poxpi ezizena, berriz, gaztetan dantzan poxpolin jantzita ibiltzen zelako. Azkoitian jaio eta bizi izan da beti. Aita Azkoitiko Baliaras baserrikoa eta ama Altamira auzoko Tejeria ("Tailleixe") baserrikoa zituen. Aitaren lana zela eta jaitsi ziren kalera bizitzera.</p>

Transkripzioa

- Beno, hasteko izena eta abizena esaten badizkiatzu?
- Cruz Alberdi Alberdi.
- Eta ze urtetan jaio ziñen?
- Maietzin hiruen, Santa Cruz, horreatik ipini [ziben] Cruz. Santa Cruz egune, ba, mille beatzirehun eta berroeta hiru.
- Eta Poxpi ezizena nundik dator?
- Jesus, Poxpi dator e... hori askok galdetzen diebe, e? Horrek badauke singnifikaue. Ni gaztetan, eskolan, poxpoliñe nintzen, dantzan. Dantzan ibiltzen nintzen, eta orduen ba Poxpoliña, "Hi poxpoliña zea ta" zaharrouek, ezta?
- Handik geldituta?
- Zaharrouek, ordun zigarrota ta bialtzen giñun gu taberna ta jo ipurdixen ta "Hi, benga poxpoliña ekarri zak" ta poxpoliña, poxpoliña, poxpoliña, atzenin poxpikin geldiu. Nere izena esatie zaille zan, Cruz. Hamen Cruz ez du ertetzen. Askotsaz zaillo zan, eta Poxpi errezo. Gero etxin bertan hasi zien Poxpi esaten ta, ya está, danak Poxpi.
- Betirako horixe.
- Betirako.
- Eta bizi beti hemen?
- Beti
- Kalen?
- Azkoitixen jaixo eta Azkoitixen bizi. Beti. Azkoitixe guk maitie deu herrixen.
- Eta gurasoak ere kaletarrak?
- Ez gurasoak, e, aittittek bixek baserrin jaixotakuek, ta aitte ta ama´re bai. Ama Balixazen [Baliarasen] edo aitte Balixazen eta ama hemen zea Kukuherriko bide hortan Tailixe basarrixen. Bixek azkoitiarrak bai. Bai aittittek, bai ama eta bai geu eta geure semik´e bai, danak.
- Eta nolatan baserritik kalera ba?
- Ordun? Ba, gure aite jaixo zan lekuen, baserrixe Balixaz, han tailerra zeuen. Ta zea, arpilleri eitten zeuben, abarketak eitteko. Ta bere aita zea zan, han enkargau eitten zuna, gero gure aitte beori´re enkargau. Aittitte zun enkargau, ezta? Ta aittitte gero kalera etorri zan relojero bezela, aittitte relojeru, hor kantue badao ba, 'Din-don, din-don, mi aittitte relojero...' hori. Ba, aittitte zan relojerue ta hure kalien hamen relojeixe euki zun. Kalin. Gure aitte, berriz, Intxustin lanin zea eitten, zakuk eitten, ta haure´re enkargau. Baiñe Intxustire etorri zan, hona kalea. Ta ordun han bertan bizi zin hasieran, Intxustin bertan, ta gero kalin, hementxe.

2. Eskolan euskaraz egiten zuenari zigorra

- **Erref:** AZK-014/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:02:33. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Eskolan mixerikordian mojekin eta Floreagan mesedetakoekin ibili zen. Eskolan ikasten zituztenak azaltzen ditu. Erdaraz egiten zuten derrigorrez, euskaraz egiten zuenari zigorra jartzen zioten eskola garbitzen. Mutilak eta neskak banatuta joaten ziren eskolara. Gau-eskolan ere ibili zen, lanera hasteko asmoz, tornuan etab. ikasten.</p>

Transkripzioa

- Eta eskolaa ta? Nun ibili ziñen eskolan?
- Eskolaa? Eskolan ibili nitzen ni Miserikordixen, mojakin. Ta gero, Florian, hor goixen, Floreaga, merzedarixukin, merzedarixuk.
- Zer izeten zin hoiek?
- Merzedarixuk zin... praillik. Abarik mezie ematen zeбен, klaro. Haixek auskalo nundik etorri zin! Valladolid aldetiken hortik Toro ta badiz hor herri batzuk. Ggorrak zin haixek... dios!! Haixekin jolasik ez zaon.
- Eta ze ikasten zenduen?
- Dana! Ikasi...praktikamente dana. Relijixue...
- Dotriña-ta gehiago ala matematika ta holako gauzak ´e bai?
- Matematika ´re bai! Matematika bastante... bastante eitten genun. Gramatika eitten genun. Gero, berriz, isturixe. Bueno, isturixe nei Don Quijoten zeak eta eitten [zizkun]. Bueno, ta berko ikixi!
- Eta euskeraz ala erderaz?
- Erdera totala! Erdera totala. Porke, gaiñea, guri eitten zigun, euskeraz hitz eitten bagenun alkarri, dak! ta ordun makille bat, holako makille zea bat zan, haure entregatzen zigun euskeraz eitten zunai, ezta? Ta gero hartzen genun ta zai, besten batek aber eitten al dun. Ta ordun, harekin gelditzen zana zauken eskolie bukautekun porroie, zerrautse ta eskobie, ta es...
- Kastigauta.
- Kastigaute eskola garbitzen. Eunero gelditzen zana makillikin... Han ez zauen interina berrik. Ta gu, berriz, erderaz ez gakixen ta beti makilla puñetero hori eskun akaberan.
- Eta neska ta mutil danok batea juten ziñeten?
- Ez, ez, neskaik ez, mutillek bakarrik. Mutillek, mordue! Han zauden "primera", txikiñek, "segunda", "tercera" ta "cuarta" zauden. Ta zu juten ziñen urtin-urtin mailla bat aurea. Ta gero "cuarta"n, hamahiru urtekin juten ziñen "cuarta"a, ta eskola profesionala ipini zeбен gabaz, ta gero hara juten nintzen eskola profesionala: limen, tornun...
- Gau-eskola izengo zan...
- Gau-eskola bezela, ta hantxe ibiltzen nintzen. Ikixi nahi zeoze, azkar alde eitteko lanea. Ordun diruik ez zaon ta dirue, dirue ber eskun... San Pedro!

3. Jolas nagusia, pilota

- **Erref:** AZK-014/003
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Gaztetako jolasak aipatzen ditu: futbola, pilota, zapoka, txorro-morroka, etab. Orduan jendea lanetik atera orduko pilotara joan ohi zen. Desafio ugari izaten zen eta frontoian eta Kontzejupean txanda eman ezinda aritzen ziren pilotan.

4. 13 urterekin Juaristira errekadista ; 14 urterekin Zubillagara delineante

- **Erref:** AZK-014/004
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 00:07:16. **Bukatu:** 00:12:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

13 urterekin bukatu zuen eskola eta orduantxe hasi zen lanera, "estudios primeros"eko titulua gero atera bazuen ere, soldadutza garaian. Juaristi lantokian hasi zen mandatarari lanean eta astean 52 pezeta irabazten zituen. Bizikletaz ibiltzen zen. Irabazitako dirua amonari ematen zion. Bigarren astetik tornura pasa zuten gau-eskolan ikasi zuenari esker eta soldata ere igo zioten. Praka motzekin ibiltzen ziren orduan eta lantokian hastean buzo luzea eraman behar izan zuelako latsa pasa zuela azaltzen du. 14 urte bete zituenean Zubillagara joan zen lanera; delineatzaile postuan lanean aritu zen eta gauez ikasi egiten zuen.

5. Soldadutza Donostian egin zuen

- **Erref:** AZK-014/005
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzara 20 urterekin joan zen Donostiara eta oso oroitzapen txarrak ditu. Ez zieten uzten etxera itzultzen. Bulego topografoan lan egiten zuen, eta goizetik arraunean ibiltzen zen. Nafarroako Karraskaleko kanpamentuan 3 hilabete egin zituen eta han ere gaizki pasa zuen. Orduko pasadizo bat kontatzen du, kartzelan zigortuta egon zenekoa. Ez zuten goserik pasa. Berekin izan zituen lagunak aipatzen egiten du.

6. Soldadutzako pasadizoak

- **Erref:** AZK-014/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan kartzelan egon zen denboran gitarra bat omen zuen eta hura jotzen pasa ohi zuen denbora. Ez zuten oherik eta ohol batzuen gainean lo egiten zuten. 17 urterekin odola ematen hasi zen eta odol-emaileek hilabeteko baimena eta 400 pezeta izaten zituztenez etxera etortzeko, maiz hasi zen horretan. Baina antzeman egin zioten eta ez zioten gehiago odolik ematen utzi.

7. Tronpeta, klarinetea, tronpa eta saxofoia ikasia; bandan aritua

- **Erref:** AZK-014/008
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:19:43. **Bukatu:** 00:21:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gazterik hasi zen musika ikasten: lehenengo tronpeta, 13 urterekin jo zuen lehenengo kalejira Azkoitiko bandarekin; gero klarinetea, tronpa eta jarraian saxofoia jotzen hasi zen. Etxetik zetorkion zaletasuna, aitzak kitarra eta ahoko soinua jotzen zituen. Senide denek kitarra jotzen zuten eta anaia batek organoa.

8. Azkoitiko eta Azpeitiko musika-bandetan ibilia

- **Erref:** AZK-014/009
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:26:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Saxofoia jotzen zuen bandan, eta, gero, Candido Beristainekin Dimas orkestran hasi zen. Azkoitiko Beti Alaira pasa zen, eta pare bat urtez han aritu zen. Urte batean, 136 emanaldi eman zituzten, eta lanean eta bandan aritu behar izaten zuen batera. Bolada batean utzi ere egin zuen banda, lana eta musika uztartu ezinda. Gero, Azpeitiko bandara joan zen. Azkoititik Azpeitira joateko arrazoiak azaltzen ditu. Ez zuten diru askorik kobratzen bandan.

9. Erromerietan han eta hemen

- **Erref:** AZK-014/010
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:26:09. **Bukatu:** 00:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bandan zebilenean autobusez joaten ziren kanpora. Denboraldi batean banda utzita egon eta atzera *Laja* eta *Landakanda*

soinujoleekin hasi zen erromerietan. Azpeitiko bandan oso ondo hartua izan zen Azkoitia eta Azpeitiaren artean pikea egon arren.</p>

10. Anaitasuna futbol taldeko atezain eta lehendakari

- **Erref:** AZK-014/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:28:02. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Futbola ikaragarri gustatzen zaio. 14 urterekin hasi zen futboleko atezain postuan Azkoitiko Anaitasuna taldean eta kanpora asko ateratzen ziren. Gero futboleko zuzendari jarri zuten Anaitasuna futbol taldean eta urtebete egin zuen bertan.

11. Dantza lotua ere bekatu

- **Erref:** AZK-014/012
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:31:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gaztea zela, inguruko herrietan libre bazen ere, dantza lotua debekatua zegoen Azkoitian. Urrategi, Irukurutzeta eta beste erromeria toki batzuk aipatzen ditu. Orduan neska-laguntza egiteko ere beldurrez egon ohi ziren dena bekatu zela eta.

12. 1955ean aita alkate jarri zenekoa

- **Erref:** AZK-014/013
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:31:59. **Bukatu:** 00:36:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>1955ean, Kruz Mariren aita alkate jarri zen eta gazteak herrian mantentzeko aukeretako bat zela eta, dantza lotua egitea baimendu zuen. Industria ere ekarri zuen Azkoitira. Lehenengo aldiz plazan dantza jarri zutenekoa kontatzen du. Luistarretatik bota zituzten bera eta anaia, aita dantza lotua jarri zuelako eta jarraian baita arrebak eta beste zenbait herritar ere. "Forjas de Azkoitia" zeritzona zabaldu zuen bere aita eta gazte askori eman zien lana.</p>

13. Azkoitiko industria nagusia, abarkagintza

- **Erref:** AZK-014/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Azkoitiko industria nagusia abarkak jostearena zen. Emakume zein gizon kalean aritzen ziren abarkak josten eta, lan hartaz lotsatuta, beste zenbait etxean aritzen ziren ezkutuan. Azkoitia herriari, 'Villa Alpargatera' ezizenez deitzen zioten.</p>

14. Jaunartze txikia eta handia egiten ziren

- **Erref:** AZK-014/016
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:41:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Jaunartze txikia zazpi urterekin eta handia hamabirekin egin zituen. Garai hartan jantziak elkarri utzi edo jostunen batek egin ohi zion jaunartzea egin behar zuenari. Emaztearen jaunartzeaz eta haren janzkeraz hitz egiten du.</p>

15. Azkoitian ezkondu eta Madrilera ezkon-bidaia

- **Erref:** AZK-014/017
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:41:24. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Emaztea taberna batean ezagutu zuen eta orduko kontuak kontaktzen ditu. Etxeko aldaba jo eta Kruzekin dantza lotuan egitera jaitsi zenekoa. Azkoitian ezkondu eta ezkon-bidaian Madrilera joan ziren.</p>

16. Erromeriak aldatuta

- **Erref:** AZK-014/018
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:45:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gaztea zela, Madariaga, Urrategi, Martirieta eta inguruko auzoetara joaten zen bandarekin jotzera nahiz erromeriara, baina gaur egungo festak aldatuta ikusten ditu, erromeriak bukatzeaz daude. Jende helduari lehengo dantza gustatzen zaio.

17. Grabatutako diskoak

- **Erref:** AZK-014/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:45:12. **Bukatu:** 00:47:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Letrak konposatzen aritu izan da. Sei disko grabatuak ditu Laja eta Landakanda, Jauregi, Berastegi eta Egurrola eta dultzaineroekin. Herriko plazetan aritzen da lehen aipaturikoekin saxofoia jotzen eta doan lekura doala, beti eraman ohi du dultzaina aldean.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com